

ESTABLEZIMENDU TURISTIKO HARTZAILEEN INKESTA. Hotelak izan ezik. 2024ko apirila

2024ko apirilean, 26.077 gualdi erregistratu ziren landa-ostatuetan eta 53.921 Euskal AEko apartamentu turistikoetan

Apertetxe turistikoetan, bestalde, 41.217 gualdi erregistratu dira

Euskal AEko landa-ostatuetan, **2024ko apirilean**, sarrerak % 20,9 jaitsi dira eta gualdiak % 32,5, aurreko urteko hil beraren aldean, Eustatek landutako datuen arabera.

Sarrerak 12.280 izan dira eta gualdiak 26.077; hala ere, gogoan izan behar da 2024. urte honetan Aste Santua martxoan izan dela eta aurreko urtean apirilean.

Euskal AEko landa-ostatueta sarrerak, ostatu-gauak, batez besteko egonaldia eta okupazio-mailak. Apirila 2024

	Sarrerak		Gualdiak		Batez-besteko egonaldia		Betetze-mailak (%)			
							plazen arabera		gelaka	
	2024/04	m/m-12 (%)	2024/04	m/m-12 (%)	2024/04	2023/04	2024/04	p.p. *	2024/04	p.p. *
EUSKAL AE	12.280	-20,9	26.077	-32,5	2,12	2,49	20,0	-9,5	24,1	-8,8
Estatukoak	9.273	-24,2	19.131	-40,6	2,06	2,63	-	-	-	-
Atzeritarrak	3.007	-8,9	6.946	7,3	2,31	1,96	-	-	-	-
Araba/Álava	2.520	-11,7	4.806	-34,2	1,91	2,56	14,7	-7,0	17,3	-6,0
Estatukoak	2.223	-13,2	4.304	-36,1	1,94	2,63	-	-	-	-
Atzeritarrak	297	1,0	502	-10,8	1,69	1,91	-	-	-	-
Bizkaia	3.012	-32,5	6.598	-38,4	2,19	2,40	18,2	-9,7	21,3	-9,4
Estatukoak	2.212	-33,2	4.610	-46,0	2,08	2,58	-	-	-	-
Atzeritarrak	800	-30,6	1.988	-8,6	2,49	1,89	-	-	-	-
Gipuzkoa	6.748	-17,8	14.673	-28,9	2,17	2,52	23,9	-11,0	29,3	-10,4
Estatukoak	4.838	-23,9	10.217	-39,6	2,11	2,66	-	-	-	-
Atzeritarrak	1.910	3,1	4.456	19,3	2,33	2,02	-	-	-	-

p.p.*= aurreko urteko hilabete berarekiko portzentajea puntu aldea

M/m12 Behatutako azken hilabeteen izandako urte arteko aldiakuntza-tasa (m), aurreko urteko hilabete berarekin alderatuta (m-12)

Data 2024ko Maiatzaren 23a

Iturria: Eustat, Establezimendu Turistiko Hartzaileen Inkesta

Aurreko urteko apirilaren aldean % 8,9 jaitsi ondoren, atzerriko sarrerak Euskal AEko landa-ostatuetan 2024ko apirilean izandako sarrera guztien % 24,5 izan ziren. Ostatu-gauen kasuan, atzeritar jatorrikoak guztizkoaren % 26,6 dira, aurreko urteko hilabete beraren aldean % 7,3 gehitu direlarik.

Lurralde historikoen arabera, 2024ko apirilean, sarrerak % 32,5 jaitsi dira Bizkaian, % 17,8 Gipuzkoan eta % 11,7 Araban. Ostatu-gauen kasuan, % 38,4 jaitsi dira Bizkaian, % 34,2 Araban eta % 28,9 Gipuzkoan.

Establezimendu mota horretako batez besteko egonaldia 2,1 egunekoa izan da Euskal AEn apirilean; balio hori 2023ko hilabete berean izandako 2,5 egunen batez bestekoa baino txikiagoa izan da. Batez besteko egonaldia bidaiariak gaua igarotzen duten establezimendu bakoitzean batez

beste ematen duten egun kopuruari dagokio, eta ez Euskal AEn egiten duten egonaldiaren guztizko iraupenari.

Plazen eta gelen arabera okupazio-mailak ehuneko 9,5 eta 8,8 puntu jaitsi dira, hurrenez hurren, eta % 20,0koa izan da plazen arabera neurtuta eta % 24,1ekoa logelen arabera neurtuta.

Apartamentu turistikoei dagokienez, 2024ko apirilean 16.506 sarrera izan dira guztira, eta 53.921 gaualdi eragin dituzte. Zifra horiek aurreko urteko apirilean erregistratutakoekin alderatuz gero, % 0,6ko igoera ikusten da sarreraren kasuan eta % 1,6ko jaitsiera gaualdien kasuan.

Apartamentu turistiko esaten zaio blokearen edo multzoaren modalitatean kudeatzen duen ustiapeneko enpresa-unitate baten pean eskaintzen den ostatu-unitate bakoitzari. **Ez dira epigrafe honetan sartzen turismo-erabilerako etxebizitzak**, arrazoi turistikoengatik aldi baterako eskaintzen, merkaturatzen edo lagatzen diren etxebizitza partikularrak.

Sarrerak, gaualdiak, batez besteko egonaldia eta okupazio graduak Euskal AEko apartamentu turistikoetan. Apirila 2024

	Sarrerak		Gaualdiak		Batez-besteko egonaldia		Betetze-mailak (%)			
							plazen arabera		apartamenduka	
	2024/04	m/m-12 (%)	2024/04	m/m-12 (%)	2024/04	2023/04	2024/04	p.p. *	2024/04	p.p. *
EUSKAL AE	16.506	0,6	53.921	-1,6	3,27	3,34	36,8	-3,4	64,8	0,4
Estatukoak	10.182	-8,0	32.104	-10,7	3,15	3,25	-	-	-	-
Atzerritarrak	6.325	18,6	21.817	15,9	3,45	3,53	-	-	-	-
Araba/Álava	801	-55,6	8.065	1,6	10,07	4,40	25,9	1,2	72,8	15,6
Estatukoak	698	-57,9	5.426	-13,7	7,78	3,79	-	-	-	-
Atzerritarrak	103	-29,3	2.639	59,4	25,55	11,33	-	-	-	-
Bizkaia	11.781	14,0	24.642	1,0	2,09	2,36	37,9	-6,1	49,8	-1,8
Estatukoak	7.229	8,1	13.678	-8,8	1,89	2,24	-	-	-	-
Atzerritarrak	4.552	24,6	10.964	16,8	2,41	2,57	-	-	-	-
Gipuzkoa	3.924	-8,0	21.214	-5,6	5,41	5,27	42,3	-3,8	76,5	-2,6
Estatukoak	2.255	-17,4	13.000	-11,5	5,76	5,38	-	-	-	-
Atzerritarrak	1.669	8,9	8.214	5,6	4,92	5,08	-	-	-	-

p.p.*= aurreko urteko hilabete berarekiko portzentajezko puntuko aldea

M/m12 Behatutako azken hilabetearen izandako urte arteko aldakuntza-tasa (m), aurreko urteko hilabete berarekin alderatuta (m-12)

Data 2024ko Maiatzaren 23a

Iturria: Eustat. Establezimendu Turistiko Hartzaileen Inkesta

Euskal AEko apartamentu turistikoetako sarrera guztien % 38,3 eta gaualdi guztien % 40,5 atzerriko bisitariei dagokie, eta, 2024ko apirilean, urte arteko % 18,6ko eta % 15,9ko igoerak izan dira, hurrenez hurren.

Apartamentu turistikoetako batez besteko egonaldia, Euskal AE osoan, 3,3 egunekoa izan da 2024ko apirilean, 2023ko apirilean lortutakoaren antzekoa. Mota horretako establezimenduetako batez besteko egonaldia 10,1 egunekoa izan da Araban, 5,4koa Gipuzkoan eta 2,1 egunekoa Bizkaian.

Euskal AEko plazen okupazio maila % 36,8koa izan da, hau da, ehuneko 3,4 puntu gutxiago 2023ko apirilaren aldean. Apartamentuen okupazio mailak, aldiz, ehuneko 0,4 puntuko hazkundera izan du, % 64,8an kokatuz.

Euskal AEko **Aterpetxe turistikoei** dagokienez, 2024ko apirilean % 0,6ko urte arteko jaitsiera izan dute sarrerek, 23.509 guztira, eta guztira 41.217 gualdi eragin dituzte. Bizkaian 26.166 gualdi izan dira, Gipuzkoan 14.167 eta, azkenik, Araban 884 gualdi.

Sarrerek, gualdiak, batez besteko egonaldia eta okupazio graduak Euskal AEko aterpetxe turistikoetan. Apirila 2024

	Sarrerek		Gualdiak		Batez-besteko egonaldia		Betetze-maila plazaka (%)	
	2024/04	m/m-12 (%)	2024/04	m/m-12 (%)	2024/04	2023/04	2024/04	p.p.
EUSKAL AE	23.509	-0,6	41.217	2,4	1,75	1,70	40,2	-0,3
Estatukoak	9.893	-4,6	17.107	-0,1	1,73	1,65	-	-
Atzeritarrak	13.616	2,6	24.110	4,3	1,77	1,74	-	-
Araba/Álava	479	-17,3	884	-21,5	1,85	1,95	18,4	-20,7
Estatukoak	430	-18,7	732	-19,6	1,70	1,72	-	-
Atzeritarrak	49	-2,5	153	-29,5	3,13	4,33	-	-
Bizkaia	14.223	9,5	26.166	11,7	1,84	1,80	49,5	5,8
Estatukoak	6.212	13,6	11.229	18,8	1,81	1,73	-	-
Atzeritarrak	8.011	6,4	14.937	7,0	1,86	1,86	-	-
Gipuzkoa	8.808	-12,5	14.167	-9,8	1,61	1,56	31,6	-5,0
Estatukoak	3.252	-25,7	5.147	-24,0	1,58	1,55	-	-
Atzeritarrak	5.556	-2,3	9.020	1,0	1,62	1,57	-	-

p.p.*= aurreko urteko hilabete berarekiko portzentajezko puntuko aldea

M/m12 Behatutako azken hilabetearen izandako urte arteko aldakuntza-tasa (m), aurreko urteko hilabete berarekin alderatuta (m-12)

Data 2024ko Maiatzaren 23a

Iturria: Eustat. Establezimendu Turistiko Hartzaileen Inkesta

Ostatu mota horietako egonaldien batez besteko iraupena 1,8 egunekoa izan da 2024ko apirilean Euskal AE osoan, eta plazen okupazio maila, urte arteko 0,3 ehuneko-puntuko jaitsieraren ondoren, % 40,2koa izan da.

Informazio-oharra

ETHren erantzun-tasa % **96,9koa** izan da hilabete honetan landa-ostatueta, % **86,0koa** Apartamentu turistikoetan eta % **88,3koa** Aterpetxe turistikoetan. Eustatek eskerrak eman dizkie inkesta honetan parte hartu duten establezimendu guztiei egindako ahaleginagatik.

Informazio gehiago:

Eustat - Euskal Estatistika Erakundea / Instituto Vasco de Estadística

C/ Donostia-San Sebastián, 1 01010 Vitoria-Gasteiz

Prentsa-zerbitzua: Tlf: 945 01 75 62